



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduak 13

Vitoria-Gasteiz, 13 de diciembre de 2023

Lehendakaritza

ERALDAROA **Euskal Gizataldeen VIII. Mundu Batzarra**

Datozen abenduaren 18an, 19an, 20an eta 21ean, Donostian, Kanpoko Euskal Gizataldeen VIII. Batzarra izango da.

Biltzar hau lau urtean behin antolatzen da, kanpoko euskal gizataldeekiko harremanei buruzko 8/1994 Legeak ezartzen duen bezala, Euskal Erakundeen eta Euskal Gizataldeen artean harremanak estutzeko, Federazioen eta Euskal Etxeen inguruan.

Oraingo honetan, biltzarrak ehun lagun inguru batuko ditu Donostian, gehienak 18 herrialdetako hainbat ordezkartzatako kideak dira, eta, horiekin batera, beste pertsona batzuk ere gonbidatu dira, Euskal Diasporarekin zuzeneko lotura izategatik. Horrela, Alemaniako, Argentinako, Australiako, Belgikako, Brasileko, Kanadako, Txileko, Kolonbiako, Kubako, Espainiako, Estatu Batuetako, Frantziako, Japoniako, Mexikoko, Paraguaiko, Peruko, Uruguaiako eta Venezuelako ordezkariak izango dira gurean.

“ERALDAROA” da aurtengo ediziorako aukeratu den leloa. Hiztegian ez dago termino hori; ERALDATU eta AROA terminoak elkartu nahi ditu, eta horrekin hasiera eman nahi zaio euskal erakunde publikoen eta bere diasporaren arteko hartu-emanen garai berri bati.

Izan ere, harreman mota hauek eguneratzeko gogoeta fasean murgilduta gaude, epe ertain-luzera, Euskal Diasporarako politikak ezartzen jarraitu ahal izateko.

Era berean, nazioarteko erakundeen gomendioei jarraiki, diaspora kontzeptua zabaldu nahi dugu, eta euskal herritarrak kanpoan egoteak, arlo guztietan, gure herrirako izan dezakeen eraginean sakondu nahi dugu.

Gazteek Euskaditik ateratzen jarraitzen dute, nazioartean eskarmentua lortzeko; orain ez dira historikoki joan garen lekuetara bertaratzen; horren orde, batez ere, Europa inguruko herrialde eta hiri handietara jotzen dute; ildo beretik, Euskadik ez dio sekula utzi immigranteak jasotzeko lur izateari, eta hurrengo urteetan erronka demografiko garrantzitsu bati aurre egin beharko dio.

Egoera hauek guztiek kanpoan dauden euskal herritarrekiko hartu-emanetan sakontzen jarraitzeko beharrezko tresnez hornitzera bultzatzen gaituzte, bai antolatutako euskal erakundeetako kideen kasuan, bai Euskadin jaio arren aldi baterako edo betiko kanpoan bizi direnen kasuan.

[Lau jardunaldi izango dira](#), elkarrekin eztabaidatu eta hausnartzeko. Helburua da Euskal Komunitate Globala eraikitzen jarraitzea, tartean dauden eragile guztiak erronka honen parte sentiaraziz.

Lehendakaritza

JAURLARITZAK EUSKAL ERAGILEEN ETA GALESEKO, FLANDRIAKO eta KORSIKAKO ESQUALDEETAKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA-PROIEKTUAK BABESTUKO DITU

- **Hiru eskualde horiek Euskadiko Bazkide Estrategikoen Sareko kide dira**

Gobernu Kontseiluak, gaur, 2024rako Galeseko, Flandriako eta Korsikako eskualdeekin lankidetzak teknikoko proiektuak babesteko deialdia onartu du.

Guztira 50.000 euro banatuko dira laguntza horien bidez. Dekretu horren helburua da alde biko harremanak sendotzea eta Euskadirentzako estrategikotzat jotzen diren kanpoko beste eskualde batzuekin itunak eta lankidetzak finkatzea. Horien artean daude Galesekin, Flandriarekin eta Korsikarekin egindakoak.

Hala, dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuta dauden pertsona juridiko pribatuentzat dira. Pertsona juridiko horiek alde biko jardueraredo lankidetzak-proiektua aurkeztuko dute eta bi eskualde estrategiko horietako bazkide batek hartu beharko du parte bertan.

Zehazki, **Galesen** kasuan, diruz lagundu daitezkeen alde biko lankidetzak-proiektuen gaiak hauek izango dira:

- Mugikortasuna eta Garraioa (nagusiki, azpiegitura eta tren-zerbitzuak);
- Ingurumena eta Klima Aldaketa;
- Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuna;
- Itsas Energiak;
- Nekazaritzako elikagaien industria;
- Hezkuntza eta Prestakuntza;
- Estrategia eta Politika Fiskala, Zerga Administrazioaren Politika, Aurrekontuen Kudeaketa eta Gizarte Zerbitzuak;
- Osasuna eta Laguntzako Gizarte Zerbitzuak, balioetan oinarritutako osasun-laguntza, eta zahartze aktiboa eta osasuntsua;
- Negozio-aukerak;
- Gizarte kulturantzuna eta tolerantzia sustatzea (batez ere, hizkuntza-politikaren eta kultur sektorearen sustapenaren arloetan).

Flandriaren kasuan, honako gai hauen inguruko lanak lagundu ahal izango dira diruz:

- Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (industria eta teknologia, osasuna,

gizarte-politikak, genero-berdintasuna, sektore publikoaren kudeaketa, azpiegiturak eta garraioa);

- Lan-merkatua eta politika ekonomikoa (lanbide-heziketa, produktibitate-eta lehiakortasun-politikak);
- Ingurumena (klima-aldaketa, uren, materialen eta hondakinen tratamendua, eta ingurumenarekin eta energia berriztagarriekin bat datozen teknologiak);
- Osasuna (batez ere, zaintza kronikoak);
- Kultura eta Sorkuntza Sektoreak;
- Gizarte kulturantzuna eta tolerantzia sustatzea (giza eskubideen errespetua eta bakea eraikitzea);
- Europar eskualdeen papera indartuko duten ekimenak eta itunak.

Korsikarekin, diruz lagunduko diren gaiak honako hauek izango dira:

- Euskararen eta Korsikaren hizkuntza-normalizaziorako politikak.
- Atzerrian bizi den diasporarekin edo kolektibitatearekin harremanak eta loturak izateko politikak.
- Lankidetzaren garapena Europako gaien esparruan
- Beste lankidetzak batzuk interes komuneko eremuetan, hala nola kultura, turismoan, politika ekonomikoan edo ingurumenean.

Hiru kasu horietan, proiektu bakoitzeko gehienez 5.000 euroko laguntzak emango dira.

Bazkide Estrategikoen Sarea

Orain arte, Eusko Jaurlaritzak ondorengo eskualde hauekin sinatu ditu akordioak eta memorandumak: Jiangsu (Txina), Bavaria (Alemania), Flandria (Belgika), Queretaro (Mexiko), Cundinamarca (Kolonbia), Quebec (Kanada), Gales (Erresuma Batua), Akitania Berria (Frantzia) eta Korsika (Frantzia).

Atzerrian Euskadiren interesen zati handi bat biltzen duten eta lehentasunezko arreta jasotzen ari diren lurraldeak dira —Euskadi nazioartekotzeko, esparru geografiko estrategikotzat jotzen dira eskualde horiek—.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAK 2023KO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ONARTU DU, 3.000 PLAZA BAINO GEHIAGOREKIN

- **Plazak EAEko Administrazio Orokorrari eta haren erakunde autonomoi, Hezkuntzari, Osakidetzari eta Segurtasun Administrazioari dagozkie**

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eskatuta, Gobernu Kontseiluak 2023ko lan eskaintza publikoa (LEP) onartu du gaur, EAEko Administrazio Orokorrerako eta haren erakunde autonomoetarako, eta EAEko Hezkuntza Administrazioarako. Gainera, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak eta Segurtasun Sailak onartutako eskaintzen berri ere eman dio Gobernu Kontseiluari.

Eskaintza 3.010 plazatakoa da guztira, eta aurrerapauso handia da Jaurlaritzak euskal sektore publikoan enplegu publikoa sustatzeko duen helburuan. Kopuru horretatik, 590 plaza EAEko Administrazio Orokorrari eta haren erakunde autonomoi dagozkie, 886 Hezkuntza Administrazioari, 1.434 Osakidetzari eta Administrazio instituzionaleko gainerako zuzenbide erakunde publikoei, eta 100 plaza Ertzaintzako agente kategorian sartzeko. Plaza horiek 2020-2024 Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpiztu Programan sartzen dira.

Kalitatezko enplegua sortzeko eta hobetzeko konpromisoa duen erakundea den aldetik, euskal sektore publikoan enplegua sustatzea da lan eskaintza horien guztien helburua.

Ildo horretan, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, behin enplegu publikoa finkatzeko prozesuak amaituta, enplegu eskaintza berriak aldizka egiteko konpromisoari eusten dio, eta horrek enplegu publikorako deialdien dinamika ekarriko du berekin, gehienez ere hiru urteko epean.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

IZENDAPENA

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, informaziorako eta arau-hausteetarako barne sistemaren eta informatzaileen babesaren arduraduna izendatu du: Maite Basabe Txabarri.

Gaur egun, Maite Basabe Txabarri kontratazioko eta aurrekontuetako arduraduna zen Arartekoan.

Osasuna

OSASUN SAILAK ANBULANTZIA EZ-ASISTENZIAL, ANBULANTZIA KONBENTZIONAL ETA GARRAIO KOLEKTIBOKO ANBULANTZIA BIDEZ GARRAIO SANITARIOA KONTRATATZEKO PROZESUARI EMAN DIO HASIERA

- **Lizitazio-aurrekontua 135,2 milioi eurotik gorakoa da, hau da, egungo kontratua baino % 24 handiagoa; horrela, zerbitzuaren kostuetara egokituko da eta hitzarmen kolektiboa sinatu dadin erraztuko da**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Osasun Sailak hasiera ematea **Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistemako pazienteak ambulanzia ez-asistentzialetan, konbentzionaletan eta garraio kolektibokoetan garraiatzeko zerbitzua** hurrengo hiru urteetarako kontratatzeko prozesuari. Guztira **135.200.772 euroko** zenbatekoa izango du. Horrek esanahi du egungo kontratuaren aldean **% 24ko gehikuntza** izango duela, eta, horrela, **zerbitzuaren egungo kostuetara egokituko** dela eta gaixoak eta zaurituak ambulanzian garraiatzeko errepidean zeharreko garraio sanitarioaren Euskal Autonomia Erkidegoko **hitzarmen kolektiboa sina dadin erraztuko** dela.

Kontratu berriaren xedea da ambulanzia ez-asistentzial, konbentzional eta garraio kolektibokoetan egindako garraio sanitarioaren eskaerari erantzutea, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Erakunde Sanitario Integratuek (ESI) eskatuta. Horrela, **zentro propioetan edo itunduetan artatutako gaixoak lekualdatu ahal izango dira eta, ezintasun fisikoagatik edo bestelako arrazoi klinikoengatik, garraio arrunta erabili ezin dutenak** osasun-zentro batera edo, dagokien osasun-laguntza jaso ondoren, etxera eraman ahal izango dira.

Kontratu berri horren lurralde-esparrua Euskal Autonomia Erkidego osoa da, eta 2014/24/EB Zuzentarauak ezarritako **enpresa txiki eta ertainen konkurrentzia errazteko** helburuari jarraituz, zerbitzua **hiru lotetan** banatzen da, lurralde historiko bakoitzeko bat.

Esleipen-irizpideei dagokienez, eskaintzarik onena aukeratzeko garaian, honako alderdi hauek baloratuko dira: proposamen ekonomikoa; ambulanzien antzintasuna; eskaintako ibilgailuen CO2 emisioa; lizitatzailleek eskaintzen dituzten baliabide materialak; lan-plangintza; prestakuntza-plana; premia bereziak dituzten erabiltzaileentzako edo egoeretarako zerbitzuak; osasun-ibilgailuen ekipamendu teknikoak eta ezaugarriak gehitzea; eta genero-berdintasuna sustatzeko enpresaren protokoloa edo neurri espezifikoak.

Kontratuaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera eta kontratatzailearen profilerara bidaliko da, baimen eta onar dadin. Eskaintzak aurkezteko epea abenduko azken astean edo 2024ko lehen astean hastea aurreikusten da.

Osasuna

OSAKIDETZAK ERREZETA ELEKTRONIKOAREN BIDEZ KUDEATUKO DITU ESTATUKO ENTITATEEN 9.000 MUTUALISTEN MEDIKAMENTUAK EUSKADIN

Osasun Sailak gaur onartu du Gobernu Kontseiluan Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta MUFACE, ISFAS eta MUGEJU mutualitateen arteko hitzarmena sinatzeko proposamena. Helburua da Osakidetzaren errezeta elektronikoko sistemaren bidez kudeatu ahal izatea prestazio farmazeutiko anbulatorioa, sistema horri atxikitako mutualistak farmazia-bulegoetara joaten direnean.

Hala, mutualitate horietako titular eta onuradunek medikamentuak farmazietan hartu ahalko dituzte errezeta elektronikoa erabilita, Euskadiko osasun-sistema publikoko errezeta elektronikoko sistemaren bidez, baldin eta Osakidetzak aukeratu badute asistentzia farmazeutikoa jasotzeko. Euskadin, hiru mutualitate horietako baten onuradun diren 9.000 pertsonak aukeratu dute Osakidetzak emandako asistentzia publikoa, Euskal Osasun Zerbitzuaren errezeta elektronikoko sistemaren bidez medikamentuak jasotzeko, hau da, e-rezetaren bidez.

Horietatik 3.256k badute preskripzio aktiboren bat Osakidetzaren preskripzio elektronikoko sisteman. E-rezeta erabiltzeak abantaila ugari ematen dizkie pazienteei, bai eta Osakidetzako osasun-profesional eta Euskadiko farmaziei ere. Errezeta elektronikoren bidez medikamentuak banatu ahal izatea funtsezkoa da Osakidetzaren informazio klinikoko sistemarako. Izan ere, alde batetik, prestazio farmazeutikoaren prozesuak integratzea dakar –preskripzioa, bisatua, banaketa eta fakturazioa–, eta, bestetik, aukera ematen du historia farmakoterapeutiko bakarrean biltzeko pertsona berari arreta eman diezaioketen fakultatiboek agindutako tratamendu guztiak.

Mutualitateek ematen duten asistentzia sanitarioaren barruan zerbitzu farmazeutikoak ere jasotzen dira, eta, hain zuzen, horri esker sinatu ahal izan da hitzarmena. Prestazio farmazeutikoa honetan datza: asistentzia sanitarioaren onuradunei ematea medikamentuak, formula magistralak, efektu eta osagarri farmazeutikoak eta bestelako produktu sanitarioak, indarrean dagoen legeriak aitortutakoak, Osasun Sistema Nazionalaren barruan.

Euskadin, Estatuko entitateetako mutualitate nagusiekin lortutako akordioaren ondorioz, Osakidetzak kudeatuko du medikamentuak banatzeko prozesua. Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du, eta beste lau urtez luzatu ahalko da, betiere inplikaturako alderdiak ados badaude.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK GAZAKO PREMIA HUMANITARIOEI ERANTZUTEKO LAGUNTZA BERRI BAT ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak eLankidetzeta-garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziako 117.549 euroko beste ekarpen bat onartu du Ekialde Hurbileko Palestinar Iheslarietako Laguntzako Nazio Batuen Agentziari UNRWari bideratzeko. Zuzeneko dirulaguntza Eusko Jaurlaritzaren 500.000 euroko ekarpenari gehitzen zaio, Gazako eta Zisjordaniako biztanleen beharrezko humanitarioak asetzeko.

Deialdiaren helburua da funtsak lortzea elikagaien, higijene-gaien, sendagaien eta osasun arretaren berehalako beharrak asetzeko, bai eta Agentziak Gazan dituen zentroetan dauden errefuxiatuak edo barne desplazatuak babesteko ere. Hilabete batean, egoera larriagotu da, osasun-instalazioei, errefuxiatu eremuei eta eskolei egindako erasoak ez baitira eten eta beharrak zenbatezinak dira.

Laguntza humanitaria ez da nahiko eta erregaien faltak arriskuan jarri ditu osasun-zerbitzuak eta edateko ura. Nazio batuen Agentziak baieztatu duenez, orain arte 155 milioi dolar jaso ditu; hau da, identifikatutako beharren % 32.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK EMAKUNDEREN 400.000 EUROKO DIRULAGUNTZA BAT ONARTU DU ENPRESETAN BERDINTASUN- PLANAK SUSTATZEKO

Gobernu Kontseiluak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen ebazpen bat onartu du gaur, 400.000 euroko dirulaguntzen deialdia egiten duena. Ebazpen honen bidez, 2024. urtean enpresa, erakunde pribatuei, kooperatibei eta irabazi asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egiten da, aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatu ditzaten, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko.

Dirulaguntza zuzenduta dago, batetik, 10-150 pertsona bitarteko plantilla duten erakundeei beren lehen pausoetan laguntzera, enpresaren barruan lehen berdintasun-diagnostiko eta -planak diseinatzen hastean, plan eta programa horiek diseinatzean beharko dituzten baliabide materialez, ekonomikoz eta giza baliabidez hornituz.

Era berean, irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzea du helburu, baldin eta, gutxienez, 10 pertsona badituzte plantillan, eta aldez aurretik berdintasun-planak ezarri badituzte, eta horiek egokitu behar badituzte indarrean dagoen legeriara. Eskabideak aurkezteko epea 2024eko otsailaren 16an amaituko da, egun hori barne.

Presidencia

ERALDAROA

VIII Congreso Mundial de Colectividades Vascas

Los próximos días 18, 19, 20 y 21 de diciembre se va a celebrar en Donostia-San Sebastián el VIII Congreso Mundial de Colectividades Vascas en el Exterior.

Este Congreso se organiza cada 4 años tal y como establece la Ley 8/1994 de relaciones con las colectividades vascas en el exterior para estrechar lazos entre las Instituciones Vascas y las Comunidades Vascas organizadas en torno a las Federaciones y Euskal Etxeak-Centros Vascos. En la actualidad existen 197 Euskal Etxeak registradas por el Gobierno Vasco en 25 países.

En esta ocasión, el Congreso reunirá en Donostia en torno a un centenar de personas; la mayoría de ellas integrantes de las delegaciones de 18 países, a las que se suman las invitadas por estar relacionadas directamente con la Diáspora Vasca. Así, habrá representación de Alemania, Argentina, Australia, Bélgica, Brasil, Canada, Chile, Colombia, Cuba, España, Estados Unidos de América, Francia, Japón, México, Paraguay, Perú, Uruguay y Venezuela.

El lema que se ha escogido para esta edición es “ERALDAROA”, un término que no existe en el diccionario pero que aúna los términos ERALDA(TU), *transformar*, y ARO(A), *tiempo de*. Con ello se pretende marcar el inicio de una nueva era en las relaciones entre las instituciones públicas vascas y su diáspora.

De hecho, nos encontramos inmersos en un periodo de reflexión en torno a la actualización de estas relaciones que permita, a medio-largo plazo, seguir implementando políticas para la Diáspora Vasca.

A su vez y siguiendo las recomendaciones de las Instituciones Internacionales, se pretende abrir el concepto de diáspora y ahondar en el potencial que la presencia de vascos y vascas en el exterior tienen para el país en todos los ámbitos.

La gente joven sigue saliendo de Euskadi en busca de su experiencia internacional, lo hacen a destinos que no eran los históricos, es decir, principalmente a las grandes ciudades y países del entorno europeo. Al mismo tiempo, Euskadi nunca ha dejado de ser una tierra de acogida de inmigrantes y se enfrenta a un importante reto demográfico en los próximos años.

Esta realidad nos empuja a dotarnos de instrumentos para seguir ahondando en las relaciones con los vascos y vascas en el exterior, tanto los miembros de las entidades vascas organizadas, como a todos los nacidos y nacidas en Euskadi que temporal o definitivamente se encuentran residiendo en el exterior.

Serán [4 jornadas de debate](#) y reflexión conjunta para seguir contruyendo la Comunidad Vasca Global en la que todos los agentes concernidos se sientan partícipes de este reto.

Presidencia

EL GOBIERNO APOYARÁ PROYECTOS DE COLABORACIÓN ENTRE AGENTES VASCOS Y DE LAS REGIONES DE GALES, FLANDES Y CÓRCEGA

- **Las tres regiones forman parte de Red de Socios Estratégicos de Euskadi**

El Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde a la convocatoria de ayudas a proyectos de cooperación técnica con las regiones de Gales, Flandes y Córcega para 2024.

Las ayudas suman un total de 50.000 euros y tienen como objetivo intensificar las relaciones bilaterales y establecer nuevas alianzas y colaboraciones con otras regiones del exterior consideradas estratégicas para Euskadi, entre las que se encuentran Gales, Flandes y Córcega.

Así, las subvenciones van dirigidas a personas jurídicas privadas, con domicilio en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que presenten un proyecto de actividad o de colaboración que cuente con la participación de un socio de estas tres regiones estratégicas.

En concreto y en el caso de **Gales**, las materias de los proyectos de colaboración bilateral subvencionables serán:

- Movilidad y Transportes (infraestructura y servicios ferroviarios principalmente.);
- Medio Ambiente y Cambio Climático;
- Tecnología, Innovación y Competitividad;
- Energías Marinas;
- Industria Agroalimentaria;
- Educación y Formación;
- Estrategia y Política Fiscal, Política de Administración Tributaria, Gestión Presupuestaria y Servicios Sociales;
- Salud y Servicios de Asistencia Sociales, atención médica basada en valores y envejecimiento activo y saludable;
- Oportunidades de Negocio;
- Impulso de una sociedad multicultural y tolerante (en materia de política lingüística y promoción del sector cultural, sobre todo).

Por lo que se refiere a **Flandes**, las materias subvencionables serán:

- Investigación, Desarrollo e Innovación (industria y tecnología, salud, políticas sociales, igualdad de género, gestión del sector público, infraestructuras y transporte);
- Mercado laboral y política económica (formación profesional, políticas de

- productividad y competitividad);
- Medio Ambiente (cambio climático, tratamiento de aguas, materiales y residuos, así como tecnologías compatibles con el medio ambiente y energías renovables);
 - Salud (sobre todo, cuidados crónicos);
 - Sectores Cultural y Creativo;
 - Impulso de una sociedad multicultural y tolerante (construcción de paz y respeto de los derechos humanos);
 - Iniciativas y alianzas que refuercen el papel de las regiones en Europa

Con **Córcega** las materias a subvencionar serán:

- Políticas de normalización lingüística del euskera y del corso.
- Las políticas de relaciones y vínculos con la diáspora o colectividad residente en el exterior.
- El desarrollo de la cooperación en el marco de los asuntos europeos.
- Otras cooperaciones en ámbitos de interés común como la cultura, el turismo, la política económica o el medio ambiente.

En todos los casos las ayudas no serán superiores a los 5.000 € por proyecto.

Red de Socios Estratégicos

Hasta el momento, el Gobierno Vasco ha suscrito distintos acuerdos y memorandos con Jiangsu (China), Baviera (Alemania), Flandes (Bélgica), Querétaro (México), Cundinamarca (Colombia), Quebec (Canadá), Gales (Reino Unido), Nueva Aquitania (Francia) y Córcega (Francia).

Se trata de un conjunto de territorios considerados como ámbitos geográficos estratégicos para la internacionalización de Euskadi, que concitan una parte sustancial de los intereses vascos en el exterior, y que están siendo objeto de atención prioritaria.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA LA OPE DE 2023 CON MÁS DE 3.000 PLAZAS

- **Las plazas corresponden a la Administración General de la CAE y sus organismos autónomos, Educación, Osakidetza y Administración de Seguridad**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy, a instancias del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, la oferta pública de empleo de 2023 para la Administración General de la CAE y sus Organismos Autónomos, y de la Administración Educativa de la CAE. Además, ha informado al Consejo de Gobierno sobre las ofertas aprobadas por el Servicio Vasco de Salud-Osakidetza y por el Departamento de Seguridad.

La oferta alcanza un total de 3.010 plazas y supone un avance muy importante en el objetivo del Ejecutivo de impulsar el empleo público en el sector público vasco. De ese total, 590 plazas corresponden a la Administración General de la CAE y sus Organismos Autónomos, 886 a la Administración Educativa, 1.434 a Osakidetza y el resto de los entes públicos de derecho de la Administración institucional, y 100 plazas para el ingreso en la categoría de agente de la Ertzaintza. Estas plazas se incorporan al Programa Berpiztu para la reactivación económica y el empleo de Euskadi 2020-2024.

Todas estas ofertas de empleo tienen por objeto el impulso del empleo del sector público vasco como una institución comprometida con la generación y mejora de un empleo de calidad.

En este sentido, el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno da cumplimiento al compromiso de ir realizando periódicamente nuevas ofertas de empleo, una vez finalizados los procesos de consolidación, que a su vez conllevará una dinámica de convocatorias de empleo público en el plazo máximo de tres años.

Gobernanza Pública y Autogobierno

NOMBRAMIENTO DE MAITE BASABE

El Consejo de Gobierno ha procedido en su reunión de hoy al nombramiento de la responsable del sistema interno de información y de infracciones normativas y de la protección de las personas informantes: Maite Basabe Txabarri.

Actualmente Maite Basabe Txabarri trabajaba como responsable de contratación y presupuestos en el Ararteko.

Salud

EL DEPARTAMENTO DE SALUD INICIA EL PROCESO DE CONTRATACIÓN DE TRANSPORTE SANITARIO EN AMBULANCIAS NO ASISTENCIALES, CONVENCIONALES Y DE TRANSPORTE COLECTIVO

- El presupuesto de licitación supera los 135,2 millones €, lo que supone un aumento del 24% respecto al actual contrato, para adecuarse a los costes del servicio y favorecer la firma del convenio colectivo

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el inicio, por parte del Departamento de Salud, del proceso de contratación del **servicio de transporte sanitario de pacientes del sistema sanitario vasco en ambulancias no asistenciales, convencionales y de transporte colectivo** para los próximos tres años, por un importe total de **135.200.772 euros**; lo que supone un **incremento del 24 %**, respecto al contrato vigente, para **adecuarlo a los costes actuales del servicio y favorecer la firma del nuevo convenio colectivo** de transporte sanitario por carretera en ambulancia de enfermos/as y accidentados/as de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El nuevo contrato tiene por objeto atender la demanda de transporte sanitario en ambulancias no asistenciales, convencionales y de transporte colectivo a petición de las Organizaciones Sanitarias Integradas (OSI) de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia, para **trasladar a las personas enfermas atendidas en centros propios o concertados, y que, por imposibilidad física u otras causas exclusivamente clínicas, no puedan utilizar transporte ordinario** para desplazarse a un centro sanitario o a su domicilio tras recibir la atención sanitaria correspondiente, en caso de que persistan las causas que justifiquen su necesidad.

El ámbito territorial de este nuevo contrato es toda la Comunidad Autónoma de Euskadi y en consonancia con el objetivo de **favorecer la concurrencia de las PYME** instaurado por la Directiva 2014/24/UE, el servicio se divide en **tres lotes**, uno por cada territorio histórico.

Respecto a los **criterios de adjudicación**, para la elección de la mejor oferta se valorará además de la propuesta económica, la antigüedad de las ambulancias, la emisión de CO2 de los vehículos ofertados, los medios materiales que oferten los licitadores, el plan de trabajo, el plan de formación, los servicios a usuarios o situaciones con necesidades especiales, el incremento de dotaciones técnicas y características de los vehículos sanitarios y el protocolo o las medidas específicas de la empresa para fomentar la igualdad de género.

El anuncio se enviará a publicar al DOUE y al perfil de contratante, tras su autorización y aprobación. Se prevé que el plazo de presentación de ofertas comience la última semana de diciembre o primera de enero de 2024.

Salud

OSAKIDETZA FACILITARÁ A TRAVÉS DE LA RECETA ELECTRÓNICA LOS MEDICAMENTOS A 9.000 MUTUALISTAS DE ENTIDADES ESTATALES EN EUSKADI

El Departamento de Salud ha aprobado hoy en Consejo de Gobierno la propuesta de suscripción de un convenio entre el Departamento de Salud del Gobierno Vasco y las mutuas MUFACE, ISFAS y MUGEJU para la gestión a través del sistema de receta electrónica de Osakidetza de la prestación farmacéutica ambulatoria dispensada en oficinas de farmacia del colectivo mutualista adscrito al mismo.

Así, los y las titulares y beneficiarios/as de dichas mutuas que hayan elegido Osakidetza para la prestación de esta asistencia farmacéutica obtendrán los medicamentos en las farmacias a través de la receta electrónica. En Euskadi existen 9.000 personas que siendo beneficiarias de alguna de estas tres mutuas han optado por Osakidetza para recibir sus medicamentos a través del sistema de receta electrónica, e-recipe, del Servicio Vasco de Salud.

De ellas, 3.256 ya disponen de alguna prescripción activa en el sistema de prescripción electrónica de Osakidetza. La utilización de la e-recipe proporciona múltiples ventajas tanto para el paciente como para los profesionales sanitarios de Osakidetza y las Farmacias de Euskadi ya que es un elemento clave de los sistemas de información clínicos de Osakidetza porque supone, por un lado, la integración de los procesos de la prestación farmacéutica -prescripción, visado, dispensación y facturación- y, por otro, permite la agrupación, en un único historial farmacoterapéutico, de todos los tratamientos prescritos por los diferentes facultativos que pueden atender a una misma persona.

La colaboración ahora acordada ha sido posible gracias a que dentro de la asistencia sanitaria que prestan las Mutuas quedan incluidos también los servicios farmacéuticos. Así, en lo que respecta a la prestación farmacéutica, ésta consiste en la dispensación a los beneficiarios de asistencia sanitaria, de los medicamentos, fórmulas magistrales, efectos y accesorios farmacéuticos y otros productos sanitarios, reconocidos por la legislación vigente, dentro del Sistema Nacional de Salud.

El acuerdo alcanzado con las principales Mutuas de entidades estatales en Euskadi hace recaer la gestión del proceso de dispensación de medicamentos en Osakidetza y tendrá una duración de cuatro años, con posibilidad de prórroga por cuatro años más, siempre que exista mutuo acuerdo de las partes implicadas.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA UNA NUEVA AYUDA PARA RESPONDER A LAS NECESIDADES HUMANITARIAS EN GAZA

El Consejo de Gobierno ha aprobado otra aportación de eLankidetzeta-Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo de 117.549 euros para la Agencia de Naciones Unidas para los refugiados palestinos UNRWA. La subvención directa se suma a la aportación de 500.000 euros del Gobierno vasco para cubrir necesidades humanitarias de la población de Gaza y Cisjordania.

El objetivo del llamamiento de UNRWA es conseguir fondos para cubrir necesidades inmediatas de alimentos, artículos de higiene, medicamentos y atención sanitaria, así como de refugio y protección de personas refugiadas en sus centros y de personas desplazadas internas.

En este tiempo, la situación ha empeorado, ya que los ataques a instalaciones sanitarias, campos de personas refugiadas y escuelas no han cesado. Además, la falta de combustible ha puesto en peligro los servicios sanitarios y el acceso a agua potable. La Agencia de Naciones Unidas ha confirmado que, hasta ahora, ha recibido 155 millones de dólares, un 32 % de las necesidades identificadas.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA UNA SUBVENCIÓN DE EMAKUNDE PARA IMPULSAR PLANES DE IGUALDAD EN LAS EMPRESAS POR UN VALOR DE 400.000 EUROS

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una resolución de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer que convoca subvenciones por valor de 400.000 euros dirigidas a empresas, entidades privadas, cooperativas y entidades sin ánimo de lucro para la contratación de una consultora homologada para la realización de un Diagnóstico sobre la igualdad de mujeres y hombres y un Plan para la igualdad.

La subvención va orientada, por una parte, a ayudar a las entidades y empresas privadas que contando con una plantilla de entre 10 y 150 personas trabajadoras requieran, en sus primeros pasos, de recursos materiales, económicos y personales, para así facilitar la incorporación de una cultura que promueva la igualdad dentro de la empresa y la confección de sus primeros Diagnósticos y Planes de igualdad.

Igualmente, se dirige a ayudar a aquellas entidades sin ánimo de lucro que, teniendo al menos 10 personas en plantilla, y habiendo implantado previamente Planes de Igualdad, se encuentren en la obligación de adecuar los mismos a la legislación vigente en la materia. El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 16 de febrero de 2024.